

**SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN  
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA  
2017ko MARTXOAK 27**

Santurtziko Udaletxeko Bilera aretoan aipatutako datan goizeko hamar eta erdietan bildu da, horretarako alde aurretik Presidente jaunak hala deituta, ohiko bileran Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseilua eta ondorengoak agertu dira:

Presidentea: Danel Bringas Egilior jna.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn. Euzko Abertzaleak Udal Taldea  
Cristina Senarriaga Rojo and. Euzko Abertzaleak Udal Taldea  
Daniel Urkiaga Alberdi jn. Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea  
Endika García Sáez jn. EH Bildu Udal Taldea.  
Pedro Miguel Lucena Balda jn. Sozialistak Udal Taldea.

Kontu-hartzaile eskuordetua: Jose Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda jn.

E.A.aren zuzendaria: Cristina García Pérez and.

Saioari hasiera eman dio Presidente jaunak deialdiko gai-ordenean dauden gaiak aztertzeko.

**1. SUEren ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN 2017ko URTARRILAREN 31ko  
OHIKO BILERAREN AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO**

Bilerari dagokion akta alde aurretik bidali denez, ez da bertan irakurri eta Presidente jaunak bozketari ekin dio. García jaunak abstenitu egingo dela adierazi du ez baitzen bileran izan. Santurtziko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseiluak Presidente jaunaren, Euzko Abertzaleak udal taldeko ordezkarien, Sí Se Puede Santurtzi udal taldearen eta Sozialistak udal taldearen ordezkarien aldeko botoekin (5 boto) eta EH Bildu udal taldearen ordezkariaren abstentzioarekin onartu egin du Artezkaritza Kontseiluaren 2017ko martxoaren 31ko bileraren akta.

## **2. SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN BERRI EMATEA.**

Presidente jaunak azaldu du Euskara Zerbitzuak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2018-2021 idatzi behar duela. Asmo horrekin udalerrian lanean dabiltzan elkarteekin bilduko dira eta alderdi politikoak ere ekarpenak egitera gonbidatu nahi ditu.

Bestetik adierazi du Euskararen Aholku Batzordea lanean ari dela eraginkorragoa izateko. Asmo horrekin, osatzen duten erakundeen ekarpenek zuzenduko dituzte Batzordearen nondik norakoak.

Azkenik, kontseilukideak Korrikan parte hartzera animatu ditu eta Udalak kilometroa erosi duela jakinarazi du.

## **3. GALDERA ETA ESKARIAK**

Urkiaga jaunak galdetu du ea nola egin ahal zaizkion Planari ekarpenak eta jakin nahi du zein den Aholku Batzordeak duen arazoa.

Presidentearen esanetan, Euskararen Aholku Batzordeak arlo guztiak daude ordezkatuak, baina askotan zaila egiten da kideen beharretara heltzea. Hori dela eta, Batzordearen gai-ordena beraiek daukaten beharretara egokituko da.

Lehenengo galderari dagokionez, jakinaraziko zaiela erantzun dio.

Ez dago aztertzeko beste gairik eta bukatutzat eman du Presidente jaunak goiburuko eguneko hamarrak eta berrogeita hamarreen. Horren guztiaren fede ematen dut, Idazkari eskuordea naizenez.

Presidente  
Danel Bringas Egillor

Idazkari eskuordea  
Jose Fernando García Pañeda